

10

Euskararen ezagutza eta erabilera, motibazio eta borondate kontua

Mertxe Mujika Balanzategi

Alfabetatze, Euskalduntze Koordinatzailea (AEK)

mertxe-m@aek.org

Sarrera-data: 2012-10-150 | Onartze-data: 2012-11-25

Laburpena. 2012ko uztailean, euskararen inguruko bi inkestaren berri izan genuen. Batetik, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eskatutako V. Inkesta Soziolinguistikoa, eta, bestetik, Soziolinguistika Klusterrak egindako Euskararen Kale Erabileraren VI. Neurketa. Bi ikerketa lan, biak ala biak euskararen lurralde osoari erreparatuz eginak. Bietan atera zen ondorio bera: euskararen ezagutza eta erabilera ez doaz abiadura berean. Ezagutza indizea asko igo da, baina ez eragite nabarmenarako beste, eta euskara ez dakitenen kopurua kezagarria da, oraindik. Artikulu honetan normalizazio bidean abiadura hobea izan dezagun, etorkizun hurbilean lehentasunak adosteko eta neurriak zehazteko bideak jartzeko aukera badagoela pentsatuz, euskal jendartearen hizkuntza normalizazioan merezi eta behar dituen gutxieneko baldintzak proposatuko dira. • **Hitz-gakoak:** *euskararen ezagutza, erabilera, normalizazioa, motibazioa, helduen euskalduntzea.*

Abstract. In July 2012 we were informed about two surveys on the Basque language. One was the 5th Sociolinguistic Survey commissioned by the Sub-Ministry for Language Planning of the Government of the BAC (Basque Autonomous Community), and the other was the 6th Street Measurement of Basque Use conducted by the Sociolinguistics Cluster. Both these pieces of work were done taking the whole territory of the Basque language into consideration. The same conclusion was drawn from both of them: knowledge and use of Basque are not moving at the same pace. The knowledge index has risen considerably, but not enough to exert a significant influence, and the number of people who do not know Basque remains a cause for concern. In this paper, in order to improve the pace along the road to normalisation, and bearing in mind that in the near future there will be opportunities to provide the means for agreeing on priorities and for specifying measures, some minimum conditions that are both worthwhile and necessary for the language normalisation of the Basque people will be proposed. • **Key words:** *knowledge of Basque, use, normalisation, motivation, Basqueisation of adults.*

2012ko uztailean, euskararen inguruko bi inkestaren berri izan genuen. Batetik, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eskatutako V. Inkesta Soziolinguistikoa, eta, bestetik, Soziolinguistika Klusterrak egindako Euskararen Kale Erabileraren VI. Neurketa. Bi ikerketa lan, biak ala biak euskararen lurralde osoari erreparatuz eginak. Lanok burutzeko metodologia desberdinak erabili zituzten arren, emaitzei begiratuta, bietan atera zen ondorio bera: euskararen ezagutza eta erabilera ez doaz abiadura berean. Hona hemen *Berria* egunkarian V. Inkesta Soziolinguistikoaren berri emateko erabilitako izenburua: *Gazte elebidun gehiago egon arren, euskara gutxiago erabiltzen dute*. Euskararen Kale Erabileraren VI. Neurketaren izenburua, berriz, hurrengo hau izan zen: *Euskarak goiena jo du kalean*. Bietan aipamen bera: erabileraren gainbehera. Argi dago euskararen erabileran ez dela gertatu nahi besteko hazkundera.

Esku artean ditugun emaitza horiek zer pentsa ematen digute, batez ere gure lan esparru nagusia euskararen ezagutzan eta erabileran eragitea izanik. Milaka dira ikasturtero euskaltegietatik igarotzen diren ikasleak; irakaskuntzan D eredua da nagusi Euskal Autonomia Erkidegoan; lan munduan gero eta gehiago dira normalizazio planak egin eta gauzatzen dituzten enpresak; hainbat inkestak diote euskararen aldeko jarrera gorantz egiten ari dela... Horrekin guztiarekin, erabileraren aldeko aldagaiak hobetzen ari direla ondoriozta liteke zentzu askotan, baina ez da horrela gertatzen, ez abiadura nahikoan, behintzat. Beraz, badago zer hausnartu, zergatiak bilatu, konponbiderako bideak jarriko baditugu. Hasteko, derigorrezkoa da ateratako datuen inguruko irakurketa egitea.

Mikel Perurenak *Berria* egunkarian 2012ko uztailaren 7an zioen bezala, inkesten emaitzak pozteko motiboak eman dituen moduan, kezkatzekoak ere eman ditu. Poztekoa da elebidunen hazkundera (euskal hiztunen ugaritzea adierazten duelako); poztekoa da belaunaldi gazteen artean gero eta handiagoa izatea euskararen ezagutza; poztekoa da eremu formaletan erabilerak gora egitea. Kezka sortarazten du, aldiz, euskararen erabilera puntu bi besterik ez hobetzeak (zalantza barik, igoera txikiegia ezagutzaren aldean). Eta arrangura are handiagoa sortzen da ikustean erabilerak behera egin duela eremu ez formaletan, alegia, etxean eta lagun artean. Botilaren parabola, batzuek erdi beteta ikusiko dute, eta beste batzuek, berriz, erdi hutsik. Bietatik dagoela esango nuke nik, baina nabarmena da lanean jarraitu beharko dugula aurrerantzean, orain arte bezala, bestalde, botila guztiz betetzeko.

Hizkuntza bat erabiltzeko orduan, ezinbesteko aldagaia da hizkuntzaren ezagutza. Euskararen kasuan, ezagutza indizea asko igo da, baina ez eragite nabarmenatarako beste, eta euskara ez dakitenen kopurua

**Egindako zenbait
ikerketaren
arabera, azken
hamarkadetan
euskarak
300.000 hiztun
irabazi ditu, eta
horien herena
euskaltegiei zor
zaie.**

kezkarria da, oraindik. Gure hizkuntzaren normalizaziorako bidean, bere garaian indar handia jarri zen haurren hezkuntzan, baina ia batere ez transmisioan, gurasoei begirako euskalduntzean, hau da, Helduen Euskalduntze Alfabetatzean. Egindako zenbait ikerketaren arabera, azken hamarkadetan euskarak 300.000 hiztun irabazi ditu, eta horien herena euskaltegiei zor zaie. Zein egoeratan geundeke euskalduntze alfabetatzea buru-belarri bultzatu izan balitz eta hezkuntzan bezainbeste lagun euskaldundu izan balira? Zalantzarik gabe, erabileran aurrera egiteko, hizkuntzaren ezagutza unibertsal bihurtu beharra dago, premiazkoa da ezagutza bermatzea. Kontzeptu honek berebiziko garrantzia dauka; izan ere, zenbat bider jotzen dugu gaztelerara gure inguruan euskaraz ez dakien pertsona bat dagoelako? Ezagutza bermatu egin behar dela esaten dudanean, ez naiz ari C1 maila edo EGAREN pareko ezagutzaz (hori helburu egokia litzatekeen arren). Sarritan nahikoa da ezagutza maila baxuagoa ere, edota ulertze hutsa, oinarrizko komunikaziorako (eta horrekin ez dut nahi inork pentsatzea elebitasun pasiboa bultzatzen ari naizenik). Borondate kontua da. Argi azaldu nahi dut ezagutza eza ezin dela aitzakia izan erabileran trabatuta egoteko. Hortaz, administrazioetik eta jendarte eragile diren elkarteetatik ezagutza unibertsal bihurtzeko bideak jarri beharko dira, epeei eta baliabideei dagokionez neurri zehatzak hartuta, jakina.

Erabilerarako bigarren aldagai garrantzitsua erabilera espazioak/guneak dira. Askotan pentsatu izan dut, eskolak eta euskaltegiak euskalduntzeko gune izan diren modu berean, kalea bera gai izan dela jendartea erdalduntzeko. Euskarak, hortaz, erabiltzeko espazioak irabazi beharra dauka, espazio publikoak eta pribatuak. Horretaz jabeturik, AEKn aspaldi jarri genituen martxan Praktika jarduerak deitzen ditugun egitasmoak (Berbalagun, guraso barnetegiak eta ibiltariak, ekitaldi kulturalak...). Dena dela, erabilerarako gune horiek toki publikoetan bermatzeko beharra ere hor dugu; euskara erabiltzeko aukera benetakoa izan behar dugu, eta ez oztopoz jositako lasterketa edo proba. Adibidez, euskaraz bizi nahi duen horrek, telebista ikusteko, zinema estreinaldiak gozatzeko edota zibermunduan ibiltzeko, erdarazko produktuak ditu nagusi. Aisialdiarekin lotutako jarduera asko eta askotan, euskara bigarren maila batean dago eta, noski, euskararen erabilera normalizatua lortzeko oztopo bihurtzen da.

Eta hirugarren aldagaia motibazioa da, gure hizkuntza baliatzeko motibazioa, alegia. Arlo honetan, batzuetan kale egiten dugulakoan nago. Hizkuntza baten edo bestearen aldeko hautua egiten dugunean, gaztelera hautatzea erabakitzen dugunean, ez gara euskararen erabile-

rari egiten diogun kalteaz jabetzen. Normaltzat jotzen dira, maiz, elkarri jartzen dizkiogun oztopoak, erabilera publikorako dauden gabeziak; dena gazteleraz egin beharra onartua dugu hein batean. Eta jarrera hori, identitate eta militantzia ez nahiko hori, nola irauliko dugun pentsatzeko ordua da. Sustapen eta prestigioa emateko garaia da, hizkuntz politikatik bertatik bultzatu beharreko prestigioa, euskaraz aritzea onuragarria dela eta inori kalterik egiten ez diola zabaltzeko garaia.

Arretaz aztertu behar da, eta tentuz, erabilerak eremu formaletan eta ez formaletan duen bilakaera. Eremu formaletan, hazkundera ematen ari da, batzuetan itxura kontua besterik ez bada ere (adibidez, ikus-entzunezko komunikabideetan elkarrizketatua euskaraz agurtzea, elkarrizketa gazteleraz egin arren). Ukaezina da azken urteotan administrazioetan eta enpresetan abian jarritako planek eragina izan dutela hazkunde horretan, batik bat, Euskal Autonomi Erkidegoan. Jendartearen presioak ahalbidetu du hori kasu askotan, jakina. Haatik, eremu honetan ere badago zer hobetu, eta, gainera, egoera guztiz ezberdina da Euskal Herriko hiru administrazio nagusietan. Itxuratik haragoko pausoa behar da, ez da nahikoa baskoa izatea, euskaldun izateko bidea euskararen ezagutza eta erabileratik etorriko da. Identitatean ere sakondu beharko genuke, euskara bihotzetara hurbiltzeko planak eta bideak landu.

Argi gorri guztiak piztu ditu, ordea, familia eta lagunen artean izandako bilakaerak. Apur bat hausnartuz gero, berehala ohartuko gara horrela izateko hainbat arrazoi daudela. Nola garatzen da egun gazteen aisialdia? Denok jabetu gara sare sozialek zer-nolako zabalkundera duten gazteen artean; zenbaterainokoa da euskararen erabilera horietan? Eta erabiltzeko aukerak, zenbatekoak dira? Begi-bistakoa da gailentzen den hizkuntza ez dela euskara, gurea, beste hizkuntza nagusien artean, baldintza zail samarretan lehiatzen baita. Era berean, telebista, aldizkariak, jolasak... zein hizkuntzatan daude gehien-gehienak? Mundu globalizatu honetan gazteen artean elebidun kontzeptua guztiz gainditu beharra dagoenez (etorkizunak ez du barkatuko), geuk kudeatu behar dugu hizkuntz aniztasuna, euskara galtzen atera ez dadin. Euskaldunok burutu behar dugu lan hori, ezinbestean, gure hizkuntzaren erabilera eta hedapena euskararen ikuspuntutik bermatzeko. Eta hori egin ahal izateko, garrantzi handia eman behar zaie aurrez aipatutako hizkuntza baliabide horiei guztiei, behar besteko baldintzatan jarri behar ditu administrazioak, euskarazko aukerak benetan ugaltzeko beharra dago eta horren aldeko hautua egiteko garaia ere bada. Euskararen normalizazioa ezin da inongo baldintzapean, zalantzan edo kinka larrian jarri. Euskarak lekua izango badu, baliabide egokiz jantzi behar dugu.

**Mundu
globalizatu
honetan gazteen
artean elebidun
kontzeptua guztiz
gainditu beharra
dagoenez
(etorkizunak ez
du barkatuko),
geuk kudeatu
behar dugu
hizkuntz
aniztasuna,
euskara galtzen
atera ez dadin.**

Bestalde, hizkuntza guztien berreskurapenean eta normalizazioan, transmisioak berebiziko garrantzia dauka. Gurera etorrita, egun umeek denbora asko ematen dute aitona-amonekin, eta Euskal Herriko inguru erdaldunetan aitona-amona horiek ez dute euskaraz jakiten. Nire aburuz, zaintza eredu horrek etena eragin du transmisioan, baina egoera horrek zail du atzera buelta, bestelako faktore batzuk daudelako tartean: umeen beharrianak, gurasoen lana eta familia uztartzeko zailtasunak, esaterako. Ezagutza unibertsal bihurtzea horrelako kasuei erreparatzeko beharra erakusten du; ezinbestekoa da helduen mundua euskalduntzeko eta esparru garrantzitsu horretan ezagutza gutxienekoa lortzeko bideak jartzea.

Honaino helduta, hemendik aurrera zer? Galdera honek ez dauka erantzun errazik. Batzuetan, erantzun globalak beharko dira, baina beste hainbatetan esparru edota gun e txikiagoetan eragin beharko da.

Erantzun globalekin hasteko, aurretik aipatutako kontzeptu bat onartu eta garatzen hasteko garaia heldu dela iruditzen zait: edozein hizkuntza erabiltzeko, jakin egin behar da. Gurera ekarrita, euskararen ezagutza unibertsal egitea beharrezkotzat jotzen dut. Sarri askotan, kontzeptu hau agertzen denean, inposizio hitza aipatzen da, ezagutza eskatzeak elkarbizitza eragozten duela aurpegiratu izan digute behin baino gehiagotan. Ez dugu oso urrun joan behar, urriaren 21eko EAEko hauteskundeetan atarian, sekulakoak entzun genituen kanpainan. Nire ustez, paradigma aldatu behar da gai honetan. Jendarte elebidunak/ele-aniztasunak elkarbizitzari onura besterik ez diola ekartzen zabaldu behar da, han eta hemen, euskara ezagutzeak pertsonok libreago egiten gaituela aldarrikatu behar dugu, ezen euskara dakienak bakarrik aukeratu ahal izango baitu hizkuntza batean ala bestean jardun. Bi hizkuntza ez eta, hiru jakitea askoz hobea dela irizten diot, hori bai, argi edukita horietako bat euskara izan behar dela.

Euskararen unibertsalizazioa garatzen hasteko orduan, beraz, ondo zehaztu behar dira horretarako beharrezkoak diren zutabeak: familia bidezko transmisioa, haurren hezkuntza eta helduen euskalduntze alfabetatzea dira jendarte euskalduntzeko hiru arlo estrategikoak. Beraz, euskararen ezagutza nabarmen handitu nahi badugu, hiru zutabe horiek sendotu behar dira.

Zutabeok sendotzeko, baina, erabaki bat baino gehiago hartu beharko da. Nik neurri zehatz hauek aipatuko nituzke:

1. Irakaskuntza eredu inguruan hausnartu behar da, gure umeak benetan euskaldunduko dituen sistema martxan jartzeko. Hau dio-

danean ezin da ahaztu jendarte eleanitz batean bizi garela eta, euskararekin batera, beste hizkuntza batzuen ezagutza ere ziurtatu egin behar dela, baina euskarak izan behar du beti lehentasuna. Nekez gauzatuko da xede hori gure hizkuntzaren aldeko diskriminazio positiborik gabe, leku zehatz batzuetan, bederen.

2. Lanbide-heziketa euskalduntzeko urratsak arindu egin behar dira; lan mundura jauzi egiten dutenerako ikasleak euskaldun oso izatea ziurtatu behar da. Hori horrela, lan harremanak euskalduntzeko osagarri izango dira gero eta enpresa gehiagotan gauzatzen ari diren normalizazio planak.

3. Helduen kasuan, bestalde, euskara ikasteak doakoa izan behar du. INVESCO enpresak guk aginduta egindako azterketa batean, euskal jendartean euskara ikasteko borondatea egon badagoela **euskal** on-dorioztatu da, beraz, nahi horri aukera eman behar zaio. Ezin da ahaztu, Euskal Autonomi Erkidegoan eta Nafarroako eremu batean behintzat, euskara hizkuntza ofiziala dela. Helduen Euskalduntze Alfabetatzearen sektoreak aitorten osoa behar du, horrek dituen lege ondorio guztiekin. Bada garaia, sektore honi zor zaiona aitortzeko eta esanetatik ekintzetara igarotzeko.

Bestenaz, ezagutza orokorra ezinbestekoa bada ere, euskaldunok geure esparrura ekarri behar dugu euskara. Izan ere, batzuetan, badirudi motiboak behar ditugula norbanakook dakigun hori erabiltzeko. Adibiderik garbiena gazteengan daukagu. Hasieran aipatu inkesten arabera, adin tarte horretan ezagutza inoizko handiena da; beraz, zergatik ez dute neurri berean erabiltzen? Hori jakin behar dugu, eta horretarako gazteen munduan sartu beharra dago, beraien ohiturak eta aisialdia bizitzeko moduak ondo aztertu eta ezagutzeko. Aurrez aipaturiko hainbat arazok eta prestigio ezak eragiten al dute? Zailtasun horien kontzientzia eza da? Transmittitu al diegu normalizatze bidean lortutakoa zenbat lan eginda lortu den? Berezko hizkuntzaren garrantziaz zerbait entzuten al dute?

Maiz, gehienetan ez esatearren, gai honen inguruan adin batetik gora gaudenok jarduten dugu, pulpitutik bezala aritzen gara iritziak ematen, aholkuak botatzen eta abar egiten. Hori guztia ondo dago, baina nik gazteen ahotsaren falta sumatzen dut arlo honetan. Etengabeko eraldaketan bizi gara, eta eraldaketa honetan euskarak dagokion lekua izan dezan, gazteen iritzia ezagutu behar dugu, etorkizunean euskararen erabilera lider izango direnak aktibatu. Soziolinguistika Klusterrak eta Topaguneak gazteen hizkuntza ohiturei buruzko ikerketa lan batzuk egin dituzte, baina horrelako gehiago behar dira.

***Etengabeko
eraldaketan bizi
gara, eta
eraldaketa
honetan
euskarak
dagokion lekua
izan dezan,
gazteen iritzia
ezagutu behar
dugu,
etorkizunean
euskararen
erabileran lider
izango direnak
aktibatu.***

Euskararen normalizazioan urte asko daramagu, gauza asko egin dira eta ahalegin horiek guztiek gure belaunaldikook sentitzen genuen eta oraindik sentitzen dugun premia zehatz bati erantzun diote. Gaur egun, oster, gazte askok pentsatzen dute euskararen normalizazioan dena eginda dagoela, ez dagoela beste ezer lortu beharrik. Izan ere, beraiek beste modu batean bizi dute hizkuntza: euskaraz hitz egiteko arazorik ez dutelakoan eguneroko bizimoduko arlo gehienetan; hala ere, askotan gazteleraz aritzeko hautua egiten dute, zergatik? Normalizatua dagoen sentsazio faltsua ote? Asko egin dela eta nahikoa ote den jakitea, ezagutzea? Erantzunak ezagutu ahal izateko, konponbideak bilatzeko, beraiekin egon beharra dago, ikerketak egin, hitz egin eta, zergatik ez, orain arte euskararen normalizazioan egindako lan askoren berri eman, hots, jakin dezatela gaur egun dituzten aukerak aurreko urteotan egindako lanari esker lortu direla. Ikastolen, gau-eskolen, euskara elkarte... sorrera eta burututako lan eskerga ezagutu egin behar dute. Horrekin guztiarekin ez dut inondik inora gazteen gainean utzi nahi erabileraren zama, ez horixe, hizkuntza baten alde egiteak duen garrantziaz jabetzea baino ez dut gura. Orain gazte horiek euskararen normalizazioa erdiesteko duten abagunea benetakoa eta behin betikoa izan daitekeela adierazi nahi diet, aukera gal ez dezaten. Horretan ere, transmisioa lantzeko ordua dugu.

Alta, azaldu dut ez dudala gazteen bizkar laga nahi erantzukizun hori, ez beraierengan soilik, behintzat. Gazteek, katean galdu ezin dugun maila osatzen dute, horregatik jarri dut hor arreta. Horregatik eta kate maila hori euskararen erabileran ahul dabilela ematen duelako. Gainera, gazte hauek noizbait guraso izango dira, eta etorkizunean beraien seme-alabak dituztenean etxerako zein hizkuntza hautuko duten erabakigarria izango da. Hala ere, ezin ahaztu Euskal Herrian euskaraz jakin gabe eroso bizi diren helduen erantzukizuna. Hainbatetan, badirudi etsi egin dugula arlo horretan, goia jo dugula dio zenbaitek, baina ez da egia. Oraindik heldu elebaker asko dago Euskal Herrian, gehiegi. Haatik, zaila da horiei ahalegina egiteko eskatzea, beraien administrazioak euskara aintzat hartzen ez duenean, gure hizkuntzari bere lurraldean behar duen ofizialtasuna aitortzen ez zaionean. Ofizialtasuna ez da euskararen gaitz guztiak sendatuko dituen mirarizko botika (EAEko egoera horren lekuko), baina nekez indartuko da onarpen horren faltan. Zerbait galdetu eta udaltzainek euskaraz erantzuten digutenean, gure osasun-zentroan euskaraz artatzen gaituztenean, fakturak eta isunak euskaraz jasotzen ditugunean, ikusi-entzun-irakurri nahi dugun edozein hedabide euskaraz aurkitzen dugunean, edozein agiri ofizial euskaraz jasotzeko aukera daukagunean... orduan bai. Orduan ez dugu non-nahi eta noiznahi

erabiltzeko arazorik izango, orduan euskara hizkuntza erabat normalizatua izango delako. Bide horretan jarriko gaituen hizkuntza politika behar dugu, eta hainbat arlotan jendarteko eragile nagusiak diren alderdiak promesak egiten hasi dira, gehiengo izan daitekeen jendarte esparrua da, gainera, norabide honekin bat datorrena. Uste dut normalizazio bidean abiadura hobeia izan dezagun, etorkizun hurbilean lehentasunak adosteko eta neurriak zehazteko bideak jartzeko aukera badagoela. Euskal jendartean hizkuntza normalizazioan merezi eta behar dituen gutxieneko baldintzak bermatzeko garaia eta aukera da aurrean duguna.

Euskararen normalizazioari buruz ari garenean, badakigu zeri buruz ari garen, horretan ados bagaude, egin dezagun bidea berandu baino lehen! ●